

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agurtzane Intxaurreaga Etxebarria
Orozko, Bizkaia
(1966)

Aurkibidea



Biografia



Orozkon jaioa, guraso biak bertakoak zituen; baserritarrak. Hiru ahizpatan erdikoa. Hiru urterekin hasi zen auzoko eskolara joaten. Ume-umetatik dantza eta kantua gustatzen zitzaizkion. Kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta AEKn ere hasi zen lanean; bere lehen soldatarekin, 17 urterekin, dantza ikasten hasi zen. 80ko hamarkadaren hasieran Antzerti eskolara joan zen, antzerki-ikasketak egitera, Donostiara, eta ordutik bertan bizi da. Ibilbide oparoa izan du aktore eta zuzendari moduan. Telebistan, zineman eta antzerkigintzan jardun du, bereziki antzerkigintzan. 1989an Hika Teatroa sortu zuten (2005etik berak gidatzen du). Antzerkigintzari buruz egin diogu elkarrizketa, batez ere genero-ikuspegia lantzeko.

Zintak

ORO-025

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-04-25
- **Iraupena:** 106 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

ORO-026

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-04-25
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. "Izatez bizkaitarra naiz eta lanbidez donostiarra"

- **Erref:** ORO-025/002
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:04:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Orozkoarra da Agurtzane. Kazetaritza ikasketak egiten zebilela, udaletxean itzultzaile lanpostua lortu zuen. Baina betidanik dantza eta antzerkirako gogoia izan duenez, lehenengo soldatarekin dantza klaseetan hasi zen Laudion. Oliteko jaialdi batean ezagutu zuen jendeak bizitza aldatu zion. 'Maskarada' antzerki taldearen "Gastibeltzaren karabinak" obrarako casting-erako deitu zioten baina ez zuten hartu. Handik gutxira lagun batekin Donostiako 'Antzerti' erakunderako probetan izena eman zuen eta hartu egin zuten. Erabaki zaila izan zen dena utzi eta 20 urterekin Donostiara etortzea. 1983. urtea zen. 1989an 'Hika Teatroa' sortu zuten. Familia ere Donostian sortu du. Haiek gipuzkoarrak dira baina berak bizkaitarra izaten jarraitzen duela dio.

2. 'Hika Teatroa'-n aktore izatetik zuzendari izatera

- **Erref:** ORO-025/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Aisia » Kultura

Laburpena:

<p>'Hika Teatroa'-n aktore moduan hasi zen eta geroago zuzendari lanak ere egiten zituen. Ama izan ondoren, "Ai ama!" (2002) lana sortu zuten eta momentu horretan denbora batez eszena gainean ez egoteko erabakia hartu zuen. Antzerkigile eta zuzendari lana zenbat gustatzen zitzaion konturatu zen orduan. Arantxa Iturberekin batera aritu zen 10 bat urtez. Hainbat lan idatzi zituzten: "Ai ama!", "Ixa", "Aitarekin bidaian", "Koadernoia zuri", "Zeta"... Azken urteetan Iturbe gabe dabil.</p>

3. Emakume izateagatik bere lana zalantzan jartzen zuten

- **Erref:** ORO-025/006
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gurasoei gogorra egin zitzaion neska izanda antzerkigintzara dedikatzeko erabakia. Herrian ere zeresana eman zuela uste du. Dagoeneko 'Hika Teatroa' taldean zebilela, gogoan du ETBko saio baterako aktore aukeraketa bat; nesken fisikoan oinarritu ziren erabat. Emakumeak gorputz barik gutxitan iritsi dira inora telebistan edo zineman. Zuzendari izatea erabaki zuenean, bere lana askotan zalantzan jartzen zuten, baita taldean bertan ere. 'Goenkale'-n zuzendari lanetan hasi zenean hasiera gogorra izan zen, izen handiko aktore batzuek "neskato hasiberri batek" zuzentzea ez zutelako begi onez ikusten.

4. Beti bere balioa frogatzen ibili behar

- **Erref:** ORO-025/007
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumea izateagatik, beti bere balioa frogatzen ibili behar izan duenaren sentzazioa dauka. Horrek bere buruari asko exijitzea ekarri dio. 2009tik aurrera 'Hika Teatroa' berak kudeatu du eta jendea bere lana gehiago kontutan hartzen hasi da. Hala ere askotan ateak jo behar izaten ditu, ziurrenik gizonezkoa izan balitz ez litzateke horrela izango. Oso langilea izateari esker lortu ditu gauza asko. Sormenaren arloan lan egitearen zailtasunak aipatzen ditu.

5. "Emakume kontuak"

- **Erref:** ORO-025/008
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:18:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Askotan entzun du antzezlanetan "emakumeen kontuak" jorratzen dituela. Arantxa Iturberi eta berari aspaldi etiketa hori ipini zietela uste du. "Txarriboda" idatzi zuenean batzuek ez zuten sinesten horrelako narrazio basatia berak idatz zezakeenik. Aurretik idatzi zuten "Ixa" askoz basatiagoa zen baina kasu gutxi egin zioten momentu hartan. Batzuentzat amatasuna, zaintza, tratu txarrak... "emakumeen gaiak" dira. Arte eszenikoak gizartearen isla dira: historia klasiko handiak gizonezkoek gizonezkoentzat idatziak izan dira. Heriotza, mendekua, traizioa... gizonezkoekin lotzen dira.

6. Emakumeen ahalduntzearen garrantzia

- **Erref:** ORO-025/009
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaur egun emakume asko hasi da istorioak kontatzen. Agurtzane bera obedientzian eta isiltasunean hezia izan da eta horrek norberarengan segurtasun falta sortzen du. Askotan gizonezko baten aurrean isildu egin izan da eta txiki sentitu da. Belaunaldi berriak askoz ausartagoak dira. Agurtzanerentzat eszena izan da bere errebeldia gunea eta bera den bezala azaltzeko tokia. Baina hortik kanpo askotan isildu egin da. "Zenbatetan ez diot ahoa itxi aurrean dudana gizonari!"

7. Emakumearen tokia arte eszenikoetan

- **Erref:** ORO-025/011
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:22:34. **Bukatu:** 00:27:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Orain arte emakumeen antzerkia ez da izan gizonezkoena bezain erakargarria publikoarentzat. Emakumeak oraindik ere gorputzagatik edo adinagatik gehiago epaitzen dira. Gero eta emakume zuzendari gehiago egon arren, gizonezko gehiago dago. Emakume antzerkigileak gutxi ziren duela gutxira arte, eta gainera gutxiago ausartzen ziren gizonezkoak baino. Gaur egun oraindik emakumezko teknikari gutxi dago, gizonezkoen mundua da erabat. Jantzitegia eta makillajea, aldiz, emakumeena da. Banaketan andrazko asko dago eta haien lana ere gogorra da, lehendabizi euren burua saldu behar baitute. Arte eszenikoetan emakumeak periferian daude oraindik. Izen batzuk aipatzen ditu, lehengoak eta oraingoak.

8. Amatasuna eta itxura fisikoa, lan mundurako oztopo

- **Erref:** ORO-025/013
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Antzerki ikasketetan emakumezko gehiago egon arren, gero lan munduan bukatzen dutenak gizonezkoak gehiago dira. Amatasuna eta fisikoa dira arrazoi nagusiak, Agurtzaneren ustez. Bere kasuan, 3 seme ditu eta lana eta amatasuna uztartu ahal izan ditu, baina askotan emakumeek profesionalki atzera egiten dute (edo ez diete aurrera egiten uzten...). Etengabe produzitzen egon beharra eta amatasuna askotan ez dira bateragarriak. Hori gizonezkoek ez zaie gertatzen. Fisikoa eta adina ere emakumeetan gehiago epaitzen dira.

9. Emakumeen fisikoa eta adina jomugan

- **Erref:** ORO-025/014
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:33:07. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Arte eszenikoetan gizonezkoen itxura fisikoa ez da hainbeste epaitzen. Gizonek ez dute zaintzeko behar hori sentitu, emakumeek aldiz beti eder eta gazte egotea eskatzen zaie. 'Goenkale'-n lanean egon zen eta han itxurari garrantzi handia ematen zitzaion. Ez daki zenbateraino aldatu diren gauzak. Emakumezko aktore asko 40 urtetik gora desagertu egiten dira telebista eta zinematik.

10. Zaintzaren pisua oraindik ere emakumeengan dago

- **Erref:** ORO-025/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lana eta familia uztartzeko ingurune sostengatzailea beharrezkoa da. Baina ingurune hori ere emakumezkoa da, eta horren kontra dago. Kosta egiten zaio etxeko zereginak egiteko emakume bati ordaintzea. Zaintza gero eta gehiago andrazkoena bihurtzen ari da. Mediki eta erizain gehienak emakumeak dira; ingeniariak, berriz, gizonezkoak. Oraindik ez ditugu rola aldatu.

11. Oraindik ez ditugu genero rola aldatu

- **Erref:** ORO-025/017
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:41:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizarte sexualizatu batean bizi gara. Emakume ereduak ez da aldatu, rol tradizionalak hor jarraitzen dute. Beste gizarte batzuetan oraindik ere emakumea bigarren mailakoa da, baina hemen ere ez da denbora asko hala izan zela.

12. Konplize profesionalak lortzea zailagoa da emakumeentzat

- **Erref:** ORO-025/018
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:41:46. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumezkoek etengabe talentua demostratzen egon behar izan dute beti. Esfortzu gehiago egin behar dute eta oztopo gehiago gainditu. Arte eszenikoen munduan emakumea izanda konplizeak lortzea ez da hain erraza.

13. "Politikoki zuzena"ren tranpa

- **Erref:** ORO-025/019
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:46:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Obra baten zuzendaria gizonetzkoa ala emakumezkoa izan, publikoa jarrera desberdinarekin joaten zen ikustera. Gaur egun "politikoki zuzena" izatearen tranpa ere badago: berdintasun legeetako kopuruak betetzeko emakumeak kontratatzea.

14. Emakumezko bati lekua uzteko gizonetzkoen zailtasuna

- **Erref:** ORO-025/021
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:48:38. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizonetzkoek zailtasunak dituzte emakumezko bati lekua uzterako garaian. Emakume askok borroka horretan ez sartzeagatik atzera egin izan dute.

15. Lan egiteko moduaren ikuspegi desberdinak

- **Erref:** ORO-025/022
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:54:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizonezkoen lan egiteko modua goitik behera izan da; aldiz emakumeena horizontalagoa, kooperatiboagoa. Askotan botere lekuetan dauden emakumeek ere gizonezkoen ereduak errepikatzen dituzte. Arte eszenikoetan eskaintza handia dago gaur egun eta horrek konpetentzia dakar. Pandemiak onerako aldaketa ekarriko zuela uste zen, baina alderantziz izan da. Emakumeek beste ikuspegi bat daukagula uste du Agurtzanek, agian ahotsa eman ez digutenez, entzutera eta begiratzera ohituago gaudelako. Bere enpresan horizontaltasun hori izaten saiatzen da.

16. Beste emakume batzuekin hitz egitearen eta partekatzearen garrantzia

- **Erref:** ORO-025/023
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:54:29. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Agurtzaneren lankideak neskak diren arren, oholtzaren inguruan mugitzen diren gehienak gizonezkoak dira. Atzera begiratuta, asko borrokatu behar izan duela ikusten du. Garrantzitsua da beste emakume eta neska gazte batzuekin hitz egitea eta partekatzea.

Transkripzioa

- Eta neskak dia zurekin lanian dabitzenak?
- Bai, bai, bai, nigez lanean neskak dabiz eta gero gertatzen dana da... ba beitu, klaro, zuzendari zarenean ekipo haundiekin lan egin behar duzu eta askotan, urte askotan, gizonezkoak izan dira. Bat, e, igual eszenatokikoak ez, baina eszenatoki inguru guztia, inguru guztia, gizonezkoa izan da. Eta eeee.... baino, bueno, bai uste dot ere azkenean sortzaileak diranak eta, jo, ba enpatia hori badaukatela, ez? Edo garatuagoa edo... ni behintzat orain ez naz /enaz/ sentitzen iñolaz ere baztertua, ez? Ba igual urteakaz be bai, ba bueno, ba jenteak esan dotsut... ba bueno, ba jentea badoa zure lana baloratzen edo... eta hori ez dot sentitan orain, ez? Baina atzera eginda, bai, jabetuten naz ez dala batere erraza izan. Eta hemen mantentzea ere ez da erraza, o sea... ez da batere erraza eta askotan, ba hori, esaten dot "jo...", ze etxean ere igual esaten doste: "jo, baiña mereziotsu /merezi dotsu/? Ze beitu, o sea, zagoz... igual zeure konture ein eta utzi proiektua" eta... Baiña, bestalde, korajea ematen doste esatea "jo, honeraiño iritsi banaz, referenteak behar doguz be bai", eta horrek emoten doste korajea

esateko "benga". Ja ez dot jartzen epe luze bat, ba lehen moduan: "Ez, hamar urte barru, pa pa...". Ez, ez dot iñon ikusten. O sea, hori... holan ez dot lan egiten ja, ez? Gehiago da: ba urte bat, bi urtera, aukera izanda, hau egingo neunke, beste hau egingo neunke, honegaz lan egingo neuke, hau kontatzeko. Baiño bai, eta inportantea da beste batzukaz hontaz berba eitea, batez ere beste neskato, beste andrazko batzukaz berba eitea, partekatzea: zu zelan sentitan zara, eta zelan zagoz, eta... niretzat hori bada inportantea. Gizonezkoakaz be bai, baiño ziurrenik ez zara... batzutan moztu eiten naz. Zergatik? Ba... zuk esaten badozu: ez, beitu, noski badaudela kristalezko sabaia-eta, etengabe daukazu beldur hori "¡ya se está quejando ésta!" Ulertzen? Ja betiko kontua. Eta horrek egiten gaitu - edo ni behintzat egiten nau -: "segi lanean, benga, ekin, segi lanean". Ordun, ba, bueno, horregatik bada partekatze hau beste andrazko batzukaz ia nola sentitan diran eurak, zergatik hau, zergatik ez, zergatik ez dozu zuk umerik euki, zergatik... nola egin dozu aurrera lanagaz, zein da zure hurrengo proiektoa... ba, bueno, ba oso inportantea da.

17. Antzerkia, "anaia pobrea"

- **Erref:** ORO-025/025
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:00:51. **Bukatu:** 01:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Zinea, telebista eta antzerkia. Antzerkia da "anaia pobrea". 'Goenkale' edo beste serie batzuk hasi zirenean aktore guztiek nahi zuten parte hartu. Gaur egun ere, plataforma digitaletako serie aukera zabalarekin, oso zaila da antzerki obra bateko aktoreak mantentzea; aldiro ordezkapenak egiten ibili behar da, horrek dakarren kostuarekin. Telebistak beste ikusgarritasun bat ematen du, baita diru gehiago ere. Baina hala ere antzerkiak beste xarma bat dauka. Ikusgarritasunari ematen zaion garrantzia. Gaur egun sare sozialak ere kontuan hartzen dira casting bat egiterakoan.</p>

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu, ez? lanbidearen egoera prekarioa ta antzeziakiin lotuta hor be badao maillaketa bat, ez? Ba ez da berdiña zinea, telebista ala antzerkia, hedabideetan askoz gutxiago edo, bueno... ez?

- Bai, bai, bai.

- Fokua modu desberdiñian ipintten dala...

- Erabat. Antzerkia da anaje pobrea, o sea, eta garai honetan... Bere garaian gertatu zan, ETB hasi zanean ekoizten, Goenkalegaz, ez? Edo beste serie batzuk. Ba jente... aktore guztiek gure eien /gurein/ edo gure gendun ETBn be bai parte hartu edo serie horreitan. Gero urte askotan egon da desertu bat, eta ordun berriro antzerkia bihurtu zan urte batzutan ba jorratu zan lur hori. Baina garai honetan, plataformak sartu dirala eta ikaragarritzko ekoizpena dago, konpaiñia modura obra bat ateratzea buuuf erabat aldapatsua da, ba... ba etengabe ba... zauzelako ordezkapenak egin beharrean. Bardin de estrenatu ta gero, estrenatu aurretik, entsaio

garaian... ezin dogu, antzerkiak ezin dau zinemagaz edo telebistagaz konpetitu. Inposiblea da. Eta... eta hori bihurtu da "lastre" bat guretzat. Ba kostu ekonomikoa batetik eta, beste batetik, ba, pertsona modura ere ba "desgaste" handia: denporarena, energia... Ze, bueno, ba, adibidez nere obrak, gehienak, oso koralak dira eta, ordun, bat ordezkatu behar badozu, jo, ba... ba besteentzako ere esfortzua da, eta horrek ez dau itxiten obrak bere horretan handitzen joatea eta. Baiño ja da, nik uste dot, ba, hori, ba... ba taldea daukagunok asumitzen ari garen gauza bat dala /batala/. Hau da orain jolasteko zelaia: hauek dira arauak eta arau horreitan zu zara txikitxuena. Eta gero, eta gaur proiektu bat ikaragarritzkoa - berdin dau, e, berdin du esatea "egongo naz hiru hilabete Centro Dramático Nacional-en", edo bardin de telebistan edo zineman ateratzen badire sei sesiño -, hori hartuko dala. Zergatik? Eeee... pues emoten dauelako beste ikusgarritasun bat, dirua be bai, noski, hori oso garbi, ze antzerkitik bakarrik Euskal Herrian gutxitan ahal zara bizi, kasu batzuk badagoz, baina gutxitan. Baiño halan da be, halan da be, hor dago: beste xarma bat dauka ikusgarritasun horrek, ez? Eta horregatik nahi dot... bizi garelako dana ikusgarritasun horren munduan, ez? Nork zu ikusiko eta nork eukiko lagun gehiago sareetan. Eta ze, orai, kastiñak (castingak) ere egiten direnean, asko begiratzen dabe: ez da ja fisikoa bakarrik, ez, ez, zenbat lagun dituzun sareetan. Eta zuk aktore bi imajinatu, bi aktore badaude eta batek ditu -ez dakit- milioi bat lagun eta besteak mila, ba, argi eta garbi joango dira beste horrengana.

18. Antzerki obrak bi hizkuntzatan, lan bikoitza

- **Erref:** ORO-025/026
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:04:46. **Bukatu:** 01:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Euskararen aldeko "militantziak" lan eta kostu bikoitza ekartzen du. Gaur egun hizkuntzari baino gehiago aktore taldeari begiratzen zaio, ez zaio iruditzen publikoak euskaraz estreinatzearen esfortzu hori benetan baloratzen duenik.

19. Aretoko helduen antzerkia da gehien baloratzen dena

- **Erref:** ORO-025/028
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:08:39. **Bukatu:** 01:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Antzerki barruko mailaketa: aretoko helduen antzerkia, antzerki familiarra edo

kaleko antzerkia. Gehiago baloratzen da helduen aretokoa eta Agurtzanerentzat ez dauka zentzurik. Ipuin-kontalari gehienak emakumeak badira ere, gizonezkoen izenak gehiago gogoratzen ditugu. Aktoreekin berdin gertatzen da. Aitziber Garmendia aipatzen du salbuespen gisa.

20. Umorea eta emakumeak

- **Erref:** ORO-025/029
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:12:23. **Bukatu:** 01:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Badirudi umorea gizonezkoen eremua izan dela. Emakumeak beti isilean egon garenez, txistek kontatzeak ere lotsa ematen digu askotan. Egon badaude emakume "salerosak" baina ez dute plazara ateratzeko aukerarik izan. Momentu honetan euskal antzekiko adibide handiena Aitziber Garmendia da. Umore azkarra egitea oso zaila da eta asko baloratzen du. Umore arinak nazkatuta dauka; obra bati eskatzen diona "inpregnatzea" da.

21. Telebistako aurkezleen itxura

- **Erref:** ORO-025/031
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:16:55. **Bukatu:** 01:19:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Telebistako aurkezleen janzkera. Eguraldiko aurkezleen itxura eta adina.

22. Estereotipoak antzezlanetan

- **Erref:** ORO-025/032
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:19:43. **Bukatu:** 01:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Estereotipoak antzezlanetan. Emakume asko idazten eta beste eredu batzuk balioan jartzen hasi dira. Berdintasunerako bidea gizonezkoen lana era bada. Askok ez dituzte euren pribilegioak galdu nahi. Gizonezkoek postu gehiago okupatu dituzte emakumeek baino. Mitoak sortzen dituen lanbide bat da.

23. Andrazko protagonista gutxi

- **Erref:** ORO-025/033
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 01:23:28. **Bukatu:** 01:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Aktore emakumeen paperak murriztuagoak izan dira beti. Orokorrean emakume protagonista gutxi daude. Adin batetik aurrera badirudi ez direla interesgarriak. Hala ere, hasi gara zahartzaroari buruz gehiago hitz egiten. Publikoaren gehiengoa emakumea eta adinekoa da. Beste gai batzuk antzerkian, emakumeen ikuspuntutik.

24. Madril vs Euskal Herria

- **Erref:** ORO-025/035
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:30:45. **Bukatu:** 01:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Madriren askoz aktore eta lan gehiago dago. Orain arte jendeak kanpora atera behar izan du ikastera, hemen ez zelako eskolarik. Baina gaur egun aukera eta baldintza onak daude Euskal Herrian.

25. Diziplina arteko nahasketa

- **Erref:** ORO-025/036
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:33:06. **Bukatu:** 01:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura

Laburpena:

<p>Obra berritzaileak ikus daitezke gaur egun. Sektorea asko garatu da eta diziplina ezberdinak nahasten dira askotan. Aldiz, Agurtzanek ez du ikusten belaunaldi berrietan egitura bati lotuta lan egiteko gogoak.</p>

26. "Sari bat besarkada edo txalotze bat da"

- **Erref:** ORO-025/039
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 01:40:53. **Bukatu:** 01:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Zuzendari onenaren saria eman zioten 2022an Errioxan. Lehen saria 2005ean eman zioten eta ikaragarria izan zen beretzat. Hirugarren sari bat ere jaso zuen 2022an. Sari bat besarkada edo txalotze bat da, baina benetako saria sormena duintasunez baloratzea da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com